

## Hizkuntza erromanikoen tipologia<sup>1</sup>

Eugenio Coseriu

*Itzultzaileak:*

Koldo Jule Garai

Ana Isabel Morales

«Hizkuntza bakoitza munduaren ezaguera zientifikorako tresna eta oinarria da»

Eugenio Coseriu, *Das Phänomen der Sprache*

*Ene adiskideok: hamasei urte pasa eta gero berriz nago Deustuko Unibertsitate honetan.* Hementxe eman nuen zenbait ikastaro 60. markadan, eta orduko entzuletarik batzuk gaur egunean irakasle direla ikustean biziki pozten naiz. Horregatik eskertu nahi nioke gonbite hau nire adiskide mina den Urrutia irakasleari. Izan ere, leku honetara itzultzeko eta orain dela hamasei urte sentitzen nintzen bezala —gutxi gora behera— berriz sentitzeko aukera eman dit. Atzo, bertoko beste lagun batekin berbetan nengoela, Areitio irakaslearekin alegia, *atzo izan baltz bezala* esaten genuen. Urte asko iragan dira, baina, edonola ere, ez dirudi horrek gure adiskidantza eten duenik.

Ondo. Hizkuntz tipo espainiar eta erromanikoari buruz mintzatuko natzaizue, eta, Urrutia irakasleak esan legez, bi zatitan azalduko dugu gai korapilotsu hori. Beraz, zuen jakinmina pizten ahaleginduko naiz aurreneko zatian, gero bigarrenean aurretik agerturiko korapiloak nola askatzen diren azaltzeko.

Asmoa hauxe da: hizkuntza erromanikoen —eta kasuan espainieraren— tipologia berri bat proposatzea, beti ere lengoaia, hizkuntzak eta linguistikaren gainean daukadan kontzepzio orokorraren arabera. Tipologiaren hastapenetan, eta are haren aintzindarietan ere, baze goen intuizio baten haritik joan nahi luke tipologia berri horrek. Hizkuntz tipologiaren aurre aurreneko aintzindaria ez zen hizkuntzalaria

---

<sup>1</sup> Deustuko Unibertsitatean 1992an Eugenio Coseriu emandako hitzaldia. Itzulpen hau egiteko, itzultzaileek jatorrizko testuaren transkribapena egin zuten, eta balizko okerrak zuzentzeko eta duda-mudazko kasuak argitzeko, Hernán Urrutia irakasleari eman zioten erderazko bertsioa. Esan beharrik ez da Urrutia irakasleak abegi ezin hobez hartu zuela lan hori, eta baita fin-fin bete ere. Itzultzaileok eskerrik beroenak ematen dizkiogu guztiagatik.

izan, filosofo eta ekonomilaria baizik: Adam Smith eskoziarra. Baina Adam Smith eta bere kontzepzioaz geroago hitz egingo dugu.

Zergatik tipologia berri bat? Bada, orain arte egin izan den eta egin ohi den hizkuntza erromanikoen tipologia, tipologikoki eredu erromanikotik gehiena aldentzen den hizkuntzan oinarritzen delako, hau da, frantsesean. Eta, hala ere, ikusten dugu nola frantsesa —historikoki hizkuntza erromanikoa izan arren, erromanikotasuna nozio historikoa bait da— tipologiaren ikuspegitik gainerako hizkuntza erromaniko guztietatik urruntzen den eta denei jazarri, baita Frantziako hegoaldean dagoen eta frantsesa ez den hizkuntzari, okzitanoari ere.

Ederki. Zergatik, orduan, tipologia hau? Bada, hasteko, idazle ospetsu batek egin zuen ohar bat gogoratu nahi dut. Idazle horrek, ama frantziarra bait zuen, oso ondo ezagutzen zuen frantsesa eta horrezaz gain bazen beste hizkuntza baten jabe, errumanierarena. Gazte zelarik azken hizkuntza horretan idatzi zuen lan bakarrean, gerora frantsesez idatzitakoetan izango zuen ezezkortasun bera agertzen zen. Izan ere, obra horrek *Nu* zuen izena, «ez» alegia. Idazlea Eugene Ionesco zen. Eugene Ionescok errumanieraz izkribaturiko lan bakar horretan kritika egiten zion poeta errumaniar bati —hizkuntz tipologiaz fitsik jakin gabe, noski, baina oso zuhurki eta hizkuntza biak ezagutuaz— eta bere kritikak honakook bezalako esapideen aurka jotzen zuen: *Bere zaldia irrintzaka entzuten du, zein ezagutu bait zuen... etab., edota gudu-jantzia lohiturik zegoela sumatu zenuen, non lo egina bait zinen... etab. etab*<sup>2</sup>.

Berak esaten zuen —hau da, Ionescok, orduan Ionescu huts hutsean zenak— guzti hori frantsesean ederto dagoela, baina ez dagokiola, inondik ere, errumanierari. Horixe da: frantsesez erabat zilegi dugu erlatibozko perpaus osoa perpaus nagusiko aditzaren ondoren kokatzea, eta hau era guztiko eta maila guztiko autoreek diote, Grenaudek edo San Antoniok berak erabiltzen dituzte tipo horretako esamoldeak. Adibidez, egitura hau:

*Littré le dit, qui ne se trompe jamais*

ezinezkoa izango litzateke beste edozein hizkuntza erromanikotan. Esaldi horretan, Littré-k qui-ren aurrean egon behar du, eta beraz, hala behar luke:

*Lo dice Littré, que no se equivoca nunca  
Dixo Littré, que no erra nunca*

<sup>2</sup> Jatorrizko bertsoan: «Oye a su caballo relinchar, al que había conocido...» etc. o bien, «sospechaste que la coraza estaba manchada de alcohol, en la que habías dormido... etc». (Itzultzaileen oharra)

...eta gauza bera errumanieraz. Frantsesez, aldiz, ez da bakarrik zilegi, baina guztiz ohizkoa. Esaterako, La Fontaine-rengan hau aurkitzen dugu: *Un loup survient qui cherchait de l'aventure*, etab.

Frantses hizkuntzako hitz ordena aztertu duen ikerlari batek, Riquemberg-ek, era honetako konstruikerez ari delarik, honelaxe dio: *frantsesez egitura hau ez da asko erabiltzen egia esan, bazterreko erabilera da...* eta horrekin batera zenbait adibide ematen du, baina ez da konturatzen hor bertan, bere testean, konstrukzio horietako bat dakarrela. Hala dio: *ne d'autres constructions sont possibles qui...* etab. Hau da, bazterrekotzat jotzen duen egitura hori berak erabiltzen du. Egia esatera ez da bazterrekoa, frantsesez komunki kausitzen den zerbait baizik. Orduan itaundu egiten diogu geure buruari zergatik bereizten ote den hemen frantsesa gainontzeko hizkuntza erromanikoetatik.

Hara: hizkuntza erromaniko guztietan txikigarriak ditugu, oso —batzutan larregi— erabiliak. Frantsesean ere badaude txikigarriak, baina gero eta gutxiago enpegatzen dira, eta normalean frantseseraz *txikiaren*<sup>3</sup> baliokide izaten dira, txikigarria eta txiki-dun egitura bereizten ez direlarik.

Gainera frantsesez askotan txikigarriak adierazpen berezietan gelditu dira hormaturik, eta dagoeneko *tablette* delakoa ez da «mahai txikia», baina esanahi jakin baten adierazlea, beste hitz bat egia esan, aurrekoarekin etimologiazko lotura duena.

Kasu berean gaude *-esimo-dun* superlatiboek dagokienean. Horiek oso ugari dabilta italieraz, espainieraz eta portugaleraz, eta are errumanieraz ere —hizkuntza horretan berandu sartu ziren arren— prozedura arrunt bihurtu dira. Bada, frantsesean superlatiboak ez dira inoiz zabaldu, ez dira sekula erabiltzen. Dauden gutxiak hiztegizko elementu bezala daude, eta italierakadatzat jotzen dira, adibidez *ilustrissime, serenissime...* baina oso gutxi dira eta, ohar zaitetze, inoiz ez prozedura bat, espainieraz, portugaleraz, italieraz etab. bezala. Guzti honek bultzatzen gaitu galdetzera ea ez ote dagoen arrazoi estrukturalen bat, printzipio orokorren bat, frantsesera alde batean eta beste hizkuntza erromanikoak bestean, jazartzen dituen. Beste gertaera batek ere eramaten gaitu tipologia berri bat planteatzera, hau da, hizkuntza erromanikoetan aldaketa linguistikoek agertzen duten bateratasuna, hizkuntzok elkar ukitutuz ez egon arren. Adibidez, guztietan jazo izan da deklinabidearen murrizketa, baita azkeneraino gorde ziren elementuetan ere, ize-norde pertsonaletan, alegia. Espainieraz, esate baterako, sortutako izenorde berriek, *nosotros, vosotros*, ez daukate deklinaziorik, eta preposizioekin erabiltzen direnean itxura berri horri eusten diote.

<sup>3</sup> Frantsesez «petit». I.O.

Katalaneraz izenorde bat behintzat, *tu* delakoa, forma bakar batera iritsi da, aipaturiko berorretara hain zehatz, eta hala, *amb tu* esaten dute, izenordea deklinatu gabe. Berdin gertatzen da beste hizkuntza erromaniko guztietan, murrizketa berbera, hizkuntz ukipenik ez egonagatik ere.

Hirugarrenez, kontrako gertaera ere badugu: aditz eremuan batetik eta izen eremuan bestetik, hizkuntza erromanikoez eduki duten itxurazko garapen inkoherentea. Izenkietan flexioa murriztu den bitartean, hondarrak baizik gelditzen ez direla (errumanieraz nominatibo / akusatibo / genitibo-datibo oposaketa, baina femenino eta singulararentzat bakar bakarrik, edota zenbait izenordetan), aditz jokoan, ordea, flexioa indartu egin da eta formak berregin egin dira, bilakaeraz itxura fonetiko berberara helduko ziren adizkiak berreraikiaz. Honela adibidez:

ERAM  
ERAS  
ERAT

italieraz honako honetara ailegatuko ziratekeen:

\*era  
\*era  
\*era

Baina gaur egun ostera

ero  
eri  
era

dauzkagu, flexioa atzera ere egin delako, berrosatu egin da eta neurri baten geure begien aurrean, zeren eta italiara zaharrea eta are alde zaharretatik gaur egungo poesian ere, *era* baita lehen pertsonako adizkia, eta berdin gertatzen da gainerako adizki inperfektuzkoetan.

Orduan galdera —gertatutakoaren aurrean errejistratze hutsarekin asetu ez eta historikoki jazo izan denaz norberak itaun egiten duenean— hauxe da: zergatik? Zergatik horren trataera desberdina aditzari eta izenari?. Izenkietan desgaste fonetikoa egon dela esan ohi da. Bai, desgaste fonetikoa bai, baina, nola desagertu dira *-BUS* edo *-ORUM* bezalako formak, fonetikoki nekez desgastatuko lirakekeenak, eta zenbait kasutan batera desgastatu ez direnak? Alegia, ez da hori erantzuna.

Aditzari gagozkiola analogiaren eragina aipatu ohi da, baina analogia ez da hiztunengandik aparteko indarra, eta beraz, galde egin genezake ea zergatik hiztunek aditzean bai, baina ez ostera izenkietan, analogia aplikatu zuten. Zer dela eta inkoherentzia hori?

Arrazoiok, hortaz, hizkuntza erromanikoen tipologia edo karakterizatze berri baten bila bultzatzen gaituzte. Baina, zer da tipologia? edo, hobeki esanda, zer da hizkuntz tipoa?

Hizkuntz tipoa hizkuntza bateko egituratze mailarik gorena dugu, berezko dituen printzipio funtzionalen eta prozedura-kategorien maila. Horrek esan nahi du sistemaren mailaren gainetik dagoela. Zuek seguruena hizkuntzaren sistema eta hizkuntzaren normaren arteko desberdintasuna ezagutzen duzue. Hizkuntza bat lengoia den ekitearen teknika historiko bat da, historian zehar eraturikoa. Lengoaia ekite sortzaille bat dugu, giza-emakumeen gainontzeko ekite sortzailleak —hala nola poesia, artea oro har, zientzia edo filosofia— bezalakoak.

Ekite horren teknika bat da hizkuntza, eta zeinnahi teknikatan legetxe, badira lengoaiaren kasuan ere hiru maila horiek.

Batetik, hitz egitearen maila daukagu, ihardutea bera, eta, bestetik, «nola egin», hau da, teknikaren hiru mailak:

—hizkuntzaren normaren maila  
—sistemaren maila  
—hizkuntz tipoaren maila

Normaren barruan tradiziozko errealizazioak ditugu, modu jakin batean, eta ez beste batean, esaten dena, balio funtzionalik ez eduki arren.

Adibidez, espainieraz /b/ unitatea normalki eta tradizionaliki —Chile salbuetsiz behar bada— [b] egin ohi da hasiera absolutuan: [barbaro] eta sudurkariaren ostean: [umbino]; beste jarrera guztietan [b] egiten da. Hori espainieraren norma bat da, ez gertaera funtzional bat. Kasu bakoitzean bestea ere ahoska zitekeen eta berdin ondo ulertuko litzaiteke, baina badago norma bat eta horixe da.

Gauza bera esan ahal dugu aditzari begira. Lehen konjugazioko aditz talde batek iragan indefinitua —frantsesez definitua deritzona— -é erakoa dauka, baina zenbait aditzek, adibidez *andar-ek*, beste norma batez jokatzeko dute, eta *-uve* da hartzen duten forma. Artean espainiera ondo menderatzen ez dutenek sistemaren arabera jokatu dute hor, eta *\*andé* esango dute hasieran, eta gero *anduve* esan behar dutela ikasiko. Era berean, hurrek *\*cabo* esaten dute aurrean, baina gero «Ez, panpoxa, hemen *\*quepo* esan behar duzu» esaten zaie eta forma zuzena ikasten dute. Halaxe gertatu zitzaion Uruguay-n zegoen

brasildar hari<sup>4</sup>. Hor daukazue brasildarra uruguayarrari kontatzen nola ibili den paseoan Uruguay-ko hondartza luze horietako batetik, eta hala esan dio:

—«Pues sí, ahí encontré esta playa y andé, andé, andé...»

Eta zera erantzun dio uruguayarrak:

—«No se dice *andé*, se dice *anduve*»

—«Ah, muy bien, muy bien.»

—«Bueno, y después, ¿qué hiciste?»

—«Pues, me metí en el agua y *naduve, naduve, naduve...*»

Hau da, ikasi berria zuen sistema aplikatzen ari zen. Norman, ordea, hizkuntza bateko errealizazio normalak, arruntak, tradiziozkoak dauzkagu.

Sistemaren mailan funtzioak eta oposizioak ditugu, oposiziozko funtzioak eta prozedura funtzionalak. Adibidez, espainieraz [b] eta [β] bereizketa normazkoa bada ere, /b/ eta /m/ artekoa sistemazkoa dugu, eta *babua* berdin izango da *babua* [βabua] deituagatik, baina berriz, *mamua* esaten badiogu ez da *babua* izango, edo bai, *babua* izango da nahi baduzue, baina gainera *mamua* ere bai, /m/ /b/-ren orde zarriz gero<sup>5</sup>. Beste sistema baten gaudela esan nahi du.

Tipoa, azkenik, printzipio funtzionalen maila da, esaten nuenez, ti-poen eta prozeduren kategoriena.

Sistema irekia da normarekiko, badu bere baitan oraindik egin ez den baina oposaketa berberen arabera egin daitekeena, badauka, beraz, birtualitate bat.

Esate baterako, zuek, edozein momentutan esan eta sor dezakezue: «mahai bilakatu» > *mahaitu*; «Coseriu-ren ideien arabera moldatu gogoz edo pentsakeraz» > *coseriutu*<sup>6</sup>. Horrelakoak esan eta sor ditzakezue nahi duzuenean, sistema irekia delako, edo (nik hizkuntza bakoitzari zehazki aplikatuz diodan bezala) honelaxe: espainiera, esateko, ez da oraintxera arte esandakoa bakarrik, baina baita espainieraz esan daitekeen guztia ere. Hau da, hizkuntza orok badu bere etorkizun alderdia ere, eta hizkuntza bat ikasten duenak —Humboldt, Bene-

detto Croce-k eta bestek ikusi zuten bezala— ez du egindakoa besterik gabe ikasten, edo ez hori bakarrik, baizik eta hizkuntza horretan *sortzen* ikasten du, eta bai eginkizun diren aukeren sistema bereganatu ere.

Tipoa, berriz, sistemarekiko da irekia; hots, badauzka bere baitan birtualitate gisa sistematan historikoki artean gauzatu ez diren, baina printzipio berberen arabera zilegi diren funtzioak.

Horixe da Adam Smith-ek —azaldu gabe, susmo hutsean— erakusten duen kontzeptzioa, eta W. von Humboldt-ek behin baino gehiagotan modu erabateko batez adierazi zuena, nahiz eta egitan ez garatu.

Zer esan nahi dut horrekin? Bada, Adam Smith-ek *Sentimendu moralen teoria* deritzon obran eranskin gisa plazaratu zuen opuskulo batean, lengoaiaren inguruko lantxo berori, hizkuntzak multzo handi bitan banatzen ditu, hizkuntza zahar eta modernoekin parekatzen dituenak. Bere ustez hizkuntza zaharretan flexioa da nagusi funtzio gramatikalen adierazpenerako; hizkuntza modernoetan, aldiz, berak *composition* deitzen diona nagusitzen da, forma perifrastikoak eduki gramatikal berberak adierazteko. Orain, zer da flexioa? Flexioa ez da sistema mailako prozedura bat. Izan ere, bere barruan besarkatzen ditu bai deklinabidea, bai aditz jokoa, *ALTIOR-IUS* erako adjetibo sintetikoak «altuago» esateko eta baita leku adberbioek, latinez adibidez, dauzkaten aldaketak: *HIC* «hemen», *HUC* «honantz», *HINC* «hemendik», *HAC* «hemendik»<sup>7</sup>. Ondorenez, funtzio desberdinek itxura aldatuak eragiten dituzten hitzean: flexioa. Esan daiteke, beraz, flexioa tipo edo kategoria bat dela eta *composition* delakoa ere bai, zergatik *composition* horren barruan sartzen dira bai aditz laguntzaileak, konstrukzioak bai kasuen funtzioak adierazten dituzten preposiziodun egiturak. Ikusten denez, prozedura guztiok guztiz desberdinak dira beren alorretan, baina badute batasunik goragoko maila batean. Hau da geroago Humboldt-ek azpimarratu zuena, esanez hizkuntza guztietan badagoela halako goragoko batasun bat. Ikusi batera zeharo desberdinak diruditen prozeduren artean, hizkuntzaren zenbait alorretako funtzioen artean, badago nolabaiteko lotura bat, itxuraz eta kanpotik halakorik ikusten ez badiegu ere. Eta Humboldt-ek esaten du hizkuntzak benetan diren bezala deskribatu nahi direnean, berak erai-ki eta moldatzen dituzten printzipioak —xoilak eta oso orokorrak direnak egia esan— eriden beharko lirakekeela. Eriden, hortaz, loturak, baina benetakoak, eta hiltunek oharkabeaz ezagutzen dituztenak,

<sup>4</sup> Ondoren datorren txistea gaztelaniaz kontatu zuen Coseriu, eta, txantxa linguistikoa delarik, jatorrizko hizkuntzan utzi ditugu bromaren gako hitzak. Euskerari dagokionez, estilo bereko edozein adibide balioko luke, esate baterako zenbakien hurrenkera ematerakoan euskaldun hasiberriek batzutan esaten duten \**hamabat* hori, hamairu, hamabi etabarrekiko analogiaz, noski.

<sup>5</sup> Hor Coseriu *bobo* eta *momo* hitzez baliatuz jari zuen adibidea. I.O.

<sup>6</sup> Jatorrizko bertsoan: «"transformar en mesa" > *mesificar*; "modificar anímica o intelectualmente de acuerdo con las ideas de Coseriu" > *coseriurizar*.» I.O.

<sup>7</sup> Balio prosekutiboa. I.O.


prozedura-kategoriok alor batean baino gehiagotan aplikatzen dituztenez. Adibide bat emango dizuet, artearen eremuko analogia bat, auzia zertan den ikus dezazuen.

Nire ustez analogiak baliagarri izan daitezke are ikuspegi pedagogiko eta didaktikotik ere. Ikusi baldin baditugu Cezanne-k pintatzen zituen Frantziako hegoaldeko zuhaitz okertuen koadroak, orduan Cezanne-ren gauzatze norma bat ezagutuko dugu, eta hala esango: «A, bai, Cezanne olibondo oker horiek pintatzen dituen da». Alabaina, eman dezagun egokitzen zaigula erakusketa batera joatea eta han badagoela koadro bat zuhaitzik ez baina gizon bi taberna baten eseririk agertzen dituen. Orduan guk «koadro hau Cezanne-rena da» esango dugu. Cezanne-ren modu funtzional batzuk ezagutu ditugu, Cezanne-ren pintatzeko era jakin batzuk, baina ez ditugu jada gauzatze normarekin identifikatzen, eta beste edozein koadrotan ager litezke. Hau da, Cezanne-ren pinturagintzako gainazal lauak eta inguru markatuak etab. antzematen ditugu. Imitatzaileek —imitatzaile onek— ez dituzte eginda dauden koadroak kopiatzen, Cezanne-k, Van Gogh-ek eta abarrek egin ez zituzten Cezanne, Van Gogh eta abarren koadroak baizik, prozedura eta funtzio tipo berberetz baliatuz. Tipoa Artean zer izan daitekeen ikusteko, pentsa ezazue zein batasun eman litekeen norbaiten obran hala pinturagintza eta eskulturagintzan nola arkitekturan eta —nik buruan daukadan kasuan bezala— poesigintzan ere. Horixe da Michel Angeloren kasua, pintore, eskultore, arkitekto eta poeta izan zena. Hemen ere teknika batasunen bat egongo da. Bada bai: ni, Michel Angelo-ren kasuan halakorik badagoelakoan nago. Printzipio bat aurki dakioke: doiak menderaturiko indarrarena. Tentsioa puntu gorenera, haustura puntura eraman eta orduantxe gelditzea. San Pedroko kupula gogoratzen baldin baduzue, badauka goreneko tentsio hori baina ez da apurtzen, hortxe, une horretantxe, haustura puntuan gelditu egin duelako Michel Angelo-k. David-en irudiak adibidez, harria jaurtikitzeko unean aurkezten digu umea, eta giharren tentsio guztia ikusten dugu, tentsiorik handieneko momentua da. Gauza bera igartzen da Michel Angelo-ren pinturan. Horrek esan nahi du prozedura tipo bat eta goragoko funtzio tipo bat ezagutzen dizkiogula, maila desberdinetan (kasuan Artearen sail desberdinetan) aditzera ematen den printzipio bat.

Estetika zaharrean bazegoen nozio bat prozedura tipo orokor horretarako, edo zehazkiago, erritmo, simetria, neurria etab. errepresentatzen zuen guztirako, poesigintzan, nahiz pinturagintzan, musikan, arkitekturan... Esaterako, galde dezakegu nolakoa izango ote zen erritmo daktilikoa arkitekturan. Bada, erritmo daktilikoa poesian honelakoxea

dugu: -<sup>aa</sup>, luze (edo azentudun) bat eta labur (edo azentugabe) bi. Guk arkitekturan beste hau eduki genezake:

COS. MAR. -1-



Erritmo daktilikoa arkitekturak

...leiho bat eta bi hutsune, edo leiho handi bat eta txikiago bi, eta gero berriz gauza bera. Horrela, erritmo daktilikoa izango genuke arkitekturan, beste gai batez eginga baina, ikusten duzuen bezala, printzipio berberari jarraiki. Luze aritu gara tipoaren nozioaren gainean, baina beharrezko iruditu zait, hizkuntzez dihardugarik tipoa zer den ikusteko.

Adam Smith-ekin hasi —termino berezirik gabe, eta prozedurei emaniko terminoekin bakarrik— eta beranduago August Wilhem Schlegel-ekin batez ere, prozedura perifrastikoak hobestea atxiki zaie hizkuntza erromaniko guztiei ezaugarri nagusi gisa, hots, Adam Smith-ek *composition* izenaz aipatzen zuena, tipo analitikoa. Hizkuntza erromanikoen karakterizazio hori Schlegel-ek frantsesez idatzi zuen liburuxka batean, —*Literatura probentzaleko hizkuntzari buruzko oharra*, Paris, 1918— azaldu zen aurrenekoz. Obra horrek hasiera eman zion linguistika erromaniko modernoari, eta harrez gero honetara hitz egin izan da: hizkuntza erromanikoak analitikoak dira, funtzio gramatikaletarako forma perifrastikoak aurkezten dituzte eta latina, ordea, hizkuntza sintetikoa zen, flexioa zeukan, hitzen funtzioen mailan barne determinazioa zeukan. Baina zer da sintetiko edo analitiko izatea?

Hizkuntza guztietan funtzioak ardatz biren bitartez adierazten dira beti: bata kate mintzatuarena da, hitz egitearena; hizkuntzalaritza modernoak, dakizuen bezala, ardatz sintagmatikoa deritzona, konbinaketa ardatza. Adibidez, guk esaldi baten

*genuen*<sup>8</sup>

forma aurkitzen baldin badugu, ez dugu besteren beharrik haren funtzioa zein den zehatz eta mehatz jakiteko. Halako batean ez dakigu

<sup>8</sup> *Teníamos* jarri zuen Coseriu adibidetzat. I.O.

zergatik, baina forma horrekin jazargoan dauden beste forma batzuk badaudelako eta guk horiek ezagutu egiten ditugulako gertatzen da hori. Hau da, paradigma ezagutzen dugu, forma horrekin batera paradigma bat osatzen duten beste forma batzuk, eta hor genuen formak indikatiboko iragan inperfektuko lehen pertsona pluralekoaren lekua batetzen du.

Jo dezagun honako izen hau agertzen zaigula:

*etxeak*<sup>9</sup>

Bada, halaber, *etxeak* plurala dela esango dugu, badakigulako beste forma bat dagoela, *etxea*, singularrekoa, hemen azaltzen ez zaiguna. Erlazio paradigmatico edo ausentziako bat daukagu<sup>10</sup>. Hitzean berean, forman, badago determinazio bat eta horrek esaten digu zein den bere balioa.

Baina pentsa dezagun hemen ez daukagula genuen, baina

*zaituzte*<sup>11</sup>

*Zaituzte*-ren kasuan hiztunak badaki zer duen buruan —*hark zuek ala haiek zu*— baina entzuleak ez. Orduan, zer den jakin ahal izateko, entzuleak zerbait behar du ardatz sintagmatikoan, kanpo determinazioen bat, eta esaterako hau kausitzen du: *Lagunek behin baino gehiagotan ikusi zaituzte...*<sup>12</sup> Eta horrela badaki: «A, haiek-zu da».

Baina beste hau ere ageri dakiguke:

*neska*<sup>13</sup>

eta hori mugatu singularra zein mugagabea izan daiteke, forma biok paradigmaren berdinak dira eta. Orduan entzuleak berriz ere determinazio sintagmatiko bat behar du, hitzetik kanpoko zerbait, mugatu singu-

<sup>9</sup> *casas* izan zen Coseriu erabilitako hitza. I.O.

<sup>10</sup> Euskaraz kontua ez litzateke hain ximplea izango, dena dela. Izan ere, gure hizkuntzan pluraleko nominatiboko formaren eta singularreko ergatibokoaren arteko sinkretismoa dago eta, ondorioz, *etxeak* ikusita, berdin esan genezake plurala dela (nominatiboa) zein singularra dela (ergatiboa). Coseriu azaldu nahi zuenerako hobeto etor liteke *dulditu*-ren bidezko adibidea: hiztunak, *du* ikusita, badaki horko osagarri zuzena singularrekoa dela, *ditu* forma ere ezagutzen duelako. I.O.

<sup>11</sup> Oraingoan *tenía* hitzaz baliatu zen Coseriu, iragan inperfektuko singularreko lehen eta hirugarren pertsonen artean dagoen sinkretismoa eta horrek sortzen duen zehazgabetasuna azpimarratzeko. Ikusten denez, lehen ibili dugun *etxea/etxeak-en* parekoa da oraingo erdal adibidea. I.O.

<sup>12</sup> «...y encuentra por ejemplo *Juan tenía entonces quince años*» dio jatorrizko bertsoak. I.O.

<sup>13</sup> Coseriu *tesis* berba aipatu zuen, kasu honetan singular eta pluraleko formen arteko sinkretismoa agerian jartzeko. I.O.

larra ala mugagabea den jakiteko, eta oraingoan hau idoroten du esaterako: *Zein neska da hori?*<sup>14</sup> eta horrela badaki mugagabearen aurrean dagoela. Ez badu ezer aurkitzen, ordea, ezin interpreta dezake.

Guzti horrekin esan nahi da badirela alde batetik determinazio paradigmatico edo barrukoak, ezagutzen ditugun oposaketei esker sortzen direnak, eta determinazio sintagmatikoak bestetik, hitzetik kanpokoak, zeinetan berba berdin-berdin gelditzen den, kanpo determinazioen bat daukalarik).

Hizkuntza guztietan bi ardatzok funtzionatzen dute. Zenbaitzutan ardatz paradigmatico gailentzen da, hau da, determinazio asko formetan beretan ematen dira. Beste batzutan ardatz sintagmatikoak du lehentasuna, hala nola txineran, ingelesan etab. Hor determinazio asko hitzetik kanpokoak dira eta berba ez da ezertxo ere aldatzen bere funtzio desberdinetan.

Azkenik, beste hizkuntza batzuetan sintagmatiko eta paradigmaticoaren artean oreka dagoela esan liteke, adibidez alemanieraz. August Wilhelm Schlegel-en irudirako, kanpo determinazioa edo determinazio sintagmatikoa nagusi den hizkuntzak analitikoak dira, eta barne determinazioak edo determinazio paradigmaticoak gaina hartzen dueneko hizkuntzei, berriz, sintetiko deitzen zaie. Terminok —sintetiko eta analitiko— A. W. Schlegel-ek ekarri zituen.

Ondorioz, hala esan ohi da: latina, sintetikoa; hizkuntza erromani-koak, analitikoak. Baina karakterizapen horrek —eta horrekin hasi gara, edo horri buruzko alusioekin— huts nabarmen bi dauzka.

Lehenbizikoa era horretako edozein karakterizapenek duen berbera da, erlatiboa izatea alegia. Izanez ere, hizkuntza guzti guztietan funtzionatzen dute ardatz biek eta ez dago hizkuntza bat ere batzala besteaz bakarrik baliatzen denik. Hizkuntza bat analitikoa dela esateak beste bat baino analitikoagoa edo beste bat baino sintetikotasun gutxiagokoa dela esan nahi du, hau da, *gutxi gora behera bat* baino ez, eta beti beste batekiko —latinarekiko kasurako— eta kitto. Baina karakterizapen horrek, hala ere, ez digu ezer esaten analitikotasun neurriari buruz.

Bigarrenik, sailkatze modu horrek ez digu esaten latinetik hizkuntza erromanikoetarako pausuan zein izan den benetan gure hizkuntzetan agindu duen printzipio edo koherentzia. Printzipio hori dela eta, esaten genuenez, prozedura analitikoa daukagu izenerako, deklinabiderako, eta alderantziz, prozedura sintetikoa aditz jokoan. Areago, baditugu aditzean forma berriak ere, jatorriz perifrastikoak izanik, gero aglutina-

<sup>14</sup> «...y encuentra por ejemplo *mi tesis* o *La tesis de Nancy*» jatorrizkoan. I.O.

tu eta flexio formak izatera heldu direnak, *cantaré* geroaldia eta orainaldiko kondizionala deritzona, *cantaria*, bezalakoak. Perifrastikoak ziren biok, baina sintetiko egin dira eta, beraz, latina baino urrunago joan.

Orduan, inkoherenteak ote dira hizkuntza erromanikoak? Izenean modu batera eta aditzean beste batera? Gertutik begiratzera, inkoherente baino gehiago esan beharko, aditzean ere perifrasiak daudelako, eta pasiboa, latinez erdizka bakarrik perifrastikoa, guztiz perifrastikoa egin delako: *soy amado, era amado* etab.

Eta izenean bertan ere, deklinabidea galdu egin dela eta gorde zen tokian galduz segitzen duela egia den arren, bestalde, baditugu gure hizkuntza erromaniko guztietan —frantsesaz beste hizkuntza erromaniko guztietan esan nahi da— paradigmatikoki edo barne determinazioz latinean baino askoz hobeto adierazten diren kategoria bi: jeneroa eta zenbakiaren kategoriak, hain zuzen.

Latinez zenbakia kasuarekin batera ematen zen eta pluralezko forma bat, adibidez, beste kasu bateko singularrekoaren berdina izan zitekeen eta batzutan are kasu bereko batena. Esate baterako, hau bezalako forma bat:

#### CASAE

...latinez jenitibo singularra, datibo singularra, nominatibo plurala eta bokatibo plurala izan zitekeen, hau da, lau funtzio desberdin eta singularra zein plurala. Honen moduko forma bat:

#### case

esaterako, erabat zehazturik dago italieraz. Plurala besterik ez da eta halakotzat jotzen da, hau da, badago barne determinazio bat oso ongi adierazia, paradigma tipoko oposaketa bat. Areago: batzutan —nola sortu den bazterrean utzirik— zenbakiak determinazio bikoitza dauka. Portugaleraz, adibidez, gertaera fonetiko jakinek prozedura morfologiko bat eragin dute:

singularra: *novo*, o itxiduna.

plurala: *novos*, o irekiduna eta atzizkiduna.

Ikusten denez, zenbakiak marka bikoitza du hor. Berdin errumanieraz:

singularra: *scoala* («eskola»)

plurala: *scoli* («eskolak»).

Bokale alternantziak eta atzizkiak batera jokatzen dute hor. Guzti hori, alde behintzat, geure begien aurrean agitu izan da, artean iragan

mendean scoale baitzen plurala, atzizki desberdinaz bakarrik eta alternantziarik gabe.

Gauza bera dugu jenerorako. Latinez jeneroa ez zen era berezi batez adierazten. Latina ikastean gutxi gora beherako arau batzuk irakasten dizkigute jeneroa zenbait kasutan ezagutu ahal izateko, besterik ez. Horrela ikasten dugu *-EN* edo *-E* bukaeradun berbak neutroak direla beti, eta halaxe da, egia esan: *NUMEN, NOMEN, MARE...* neutroak dira. Baina *-US* adibidez maskulinoa izan daiteke —*AMICUS* bezala— femeninoa —*VIRUS* eta arbola izen guztiak legez— eta neutroa ere izan daiteke, *BULBUS-en* gisara; hortaz, badira zenbaitzu aukera, eta hizkuntzaren filosofo espainiar, valentziar batek —*Vives-ek*— xvi. mendean jada ikusi zuenez, latinez jeneroa bateratasun erizpidez erabakitzen zen, hiru bukaeradun adjetiboekiko komunztadura bezala. Baina adjetibo batzuek ez zeukaten hiru bukaera modu. Askok bi besterik ez zeukaten, eta baziren amaiera bakarrekoak ere. Zer ikusten diegu hizkuntza erromanikoei arazo horretan? Latin arruntetik hasita, gero eta gehiago adierazten dela jeneroa, eta *-a* (edo horri gero dagokiona) gero eta sarrigo atxikitzen zaiola femeninoari. Hau da, *cometa* bezalako hitzak femenino egiten dira *-a* dutelako, eta hizkera arruntean baita *planeta* bezalakoak ere arrazoi beragatik. *Appendix Probi* izenekoan, non gauzak latin klasikoaz esaten ziren bezala esan behar zirela —eta ez ordurako esaten zen bezala— adierazten den, hauxe aurkitzen dugu:

#### SOCRUS non SOCRA

Hau da, «*amaginarreba*» esateko *SOCRUS* esan behar da, latin klasikoan legez —maskulinoa *SOCER* zen eta—, ez *SOCRA*. Honek esan nahi du *SOCRA* esaten zutela zegoeneko. Bai eta

#### NURUS non NURA

«*erraina*» esateko, eta ondorenez, latin arruntean *NURA* esaten zela ikusten dugu.

Eta zer dugu hizkuntza erromanikoetan? *Nuera, suegra*, eta abarrik ditugu hizkuntza desberdinetan, errumanieraz, italieraz...

*Appendix Probi*-n hau ere esaten zaigu: *PAUPER MULIER* esan behar da, *PAUPERA MULIER* barik, esan nahi da, bukaera bakardun adjetibo, ez hirukoa. Horrek esan nahi du dagoeneko *PAUPERA* esaten zela, eta honakoan, ez gaztelarak, baina bai italierak forma hori berori dakar, *povera*, alegia, *-a* duna, jeneroduna.

Jokaera horrek are urrunago jotzen du hizkuntza erromanikoen historian barrena. Kontsonante bukaeradun adjetiboek, hala nola *-es* bukaerakoek —adibidez *francés*— gaztelera zaharrean forma bakarra

izan ohi zuten: *una mujer francés, un hombre francés...* eta berdin *español edo andaluz: una mujer andaluz, un hombre andaluz*. Zer gertatu da? Guztiok femeninoko formak euronganatu dituztela. -es bukaera dutenatarik bat bakarra lotu da femenino forma barik: *cortés*. Gainontzeko guztiak femeninoko forma dute. Katalaneraz adjetibo guztiak, baita verde moetatako adjetiboak ere, denek dute femeninozko forma, hots, -a izan zena eta orain katalaneraz [-e-] ahozkatzen dena egokitu dute; edonola ere den denek euronganatu dute femeninozko forma. Portugeseraz, errumanieraz eta besteetan bi bider eragoten zaio femeninoari.

Maskulinoa: *novo*  
Femeninoa: *nova*

Asturieraz:

Maskulinoa: *pirru* («txakur arra»)  
Femeninoa: *perra* («txakur emea»)

Gaurko gazteleraz, lehen *La Regenta* izan arren, orain *la presidenta* ere badugu eduki, eta —gero eta sarrago— baita *el estudiante / la estudianta* ere; baina horiek baino aurrerago doan beste bat ere bai, Argentinako tango batean azaltzen den ondoko hau: *cada cual con su cada cuala*. Honek esan gura du femeninoa azpimarratzeko joera dagoela, herri hizkeraz bereziki. Hortaz, ezin esan izenetan ihardunbide analitiko hau ageri zaigunik, zeren hemen kategoria honetarako bestea suertatzen baita: sintetikotasunari eusten zaio, formari berari, latinez baino askoz gehiago. Beraz, nola argitu inkoherentzia hau?

Badugu, izan, kategoria jakin bat: kasuarena, erabat perifrastiko egin dena, eta geroago eta perifrastikoago bilakatuz doana, areanetan, esaten genuen, izenordeetan ere bai, non deklinabidea gorde izan baitzen. Italiaraz adibidez nominatiborako jagon da, herri hizkeran erabat eta, neurri batean, goi mailako hizkeran ere: *Il padrone sono me* («Nagusia neu naiz») aurki dezakegu, esaterako. Errumanieraz *mi* nominatiborako ere erabiltzen da, eta beste.

Hau da, konturako, alde batetik forma perifrastiko horiexek ditugu, eta bestetik, bi kategoria, jeneroarena eta numeroarena, barneko mugapena edo determinazio sintetikoa dutenak.

Horrenbestez, galdera tipologikoa hauxe da: ba ote da —koherentzia batera heltzekotan—, numeroa eta jeneroa bateratzen dituen, eta gainera kategoria bi horiek kasuari kontrakarra jartzen dituen zerbait? Ba al da? Bai bada, zerbait bada: numeroa eta jeneroa kategoria ez-

gauzatu bi dira, perpausean daukaten balioak mugatzen ez dituenak, kategoria ez erlaziozkoak dira, ez daude perpausan ezarritako erlazioaren menpe. Argibidez, berba bat berez da femeninoa lexikoan, eta femenino gisa aurkitzen dugularik, ezin diogu jeneroa aldatu, ez dago perpausean betetzen duen funtzioaren menpe. Numeroa designazioari dagokio, designatuari, eta ez perpauseko funtzioari, eta horregatik, hala singular batek nola plural batek, maskulino batek nahiz femenino batek, izenei dagokien edozein funtzio har dezakete bere gain: sujetu izan daitezke, osagarri zuzena edota zeharkakoa, izen predikatiboa... dena. Numeroak eta jeneroak ez dute horretarako oztoporik jarriko. Kasua, ordea, ereduazko funtzio gauzatua da (esatearen funtzio bati dagokio) eta ereduazko funtzio erlaziozkoa (perpausean ezartzen diren erlazioen menpe dago). Areago: esan genezake jeneroa eta numeroa barne funtzioak direla, ez dabiltzala beste hitzekiko erlazioaren arabera eta kasua, berriz, kanpo funtzioa dela. Akorduan izango duzue zelan esaten zitzaigun latina ikastekoan: «testuan *PATRIS* bezalako berba genitibo bat aurkituz gero, bila ezazue hari dagokiokkeen nominatibo edo akusatiboren bat». Hitzak balentzia aske bat balu bezala, beste zeozerekin —testuan barrena bilatu behar dugun beste hitz batzuekin— harremanetan jartzen duena. Hau da: kasua = kanpoko edo erlaziozko funtzioa; numeroa eta jeneroa = funtzio ez erlaziozkoa edo barnekoa. Hara non aurkitu dugun arazo horretarako behintzat balio lezakeen printzipio bat: *barne mugaketak —forman bertakoak— barne funtzioetarako, eta kanpo mugaketak erlaziozko edo kanpo funtzioetarako. Numero eta jeneroarentzat, paradigmak; kasuentzat sintagmak edo konbinaketak.*

Dugun arazoa, eta gero eztabaidatuko duguna, zera da: printzipio hori tipologikoa denentz, hots, gure hizkuntzetako egitura osoari lotzen zaionentz. Berehala ikusiko dugu bazaiola lotzen, eta nola gainera!

Dihardugun orain konparaketaz. Konparaketak erlazio modu diferenteak ezar ditzake: bi gauzaren artean ezaugarri bat berarekiko sortzen den erlazioa, edo ezaugarri bat beraren une desberdinen arteko harremanak, edota gauza bat beraren ezaugarri ezberdinen arteko erlazioa, adibidez, *Juan X baino altuagoa da*<sup>15</sup>: beste gauza batekiko erlazioa daukagu. Hain ziur, konparazio sistema osoa perifrastiko bilakatu da, kasu sistema bera baino lehen, eta geratu da... non geratu da? Bada —izenordeen deklinabidearen kasuan legez— konparazio formak

<sup>15</sup> Hau da: *Juan altua baino lodiagoa da* erako kasuak. Euskeraz trakets samar gertatzen dira halakoak. Hobeto esango genuke beharbada *Juanek altuera baino lodiera handiagoa du*, baina, hala eta ere, ez da oso txukun geratzen. I.O.



erroz desberdinak zirenetan, edo hobeto esateko, beste hitz batzuk zirenetan bakarrik aurkitzen ditugu hondar horiek. Ez zaio prozedurari eutsi, hitzari berari baino:

*BONUS* => *MELIOR*  
*MAGNUS* => *MAIOR*

...eta orduan, hor bai gorde direla *mejor*, *peor*, *menor*, *mayor* eta beste. Zelan gorde baina? Gorde dira, bai, baina konparaketarako prozedura arruntaren parean —eta hari jazarriz— hau da, *mejor* izanik ere, bada *mas bueno* halaber, eta inortxok ez luke esango, adibidez, norbaiten lepotik «es mejor que el pan»<sup>16</sup> «es más bueno que el pan» baizik. Gainera erabilerok badute, eurez, positibo esangura. Esatea legez, *señora mayor* edo *muy mayor-ek*, besterik gabe, «zaharra» esan nahi du, badu, izatez, positibo balioa. Eta areago herri hizkeran. Izanez ere, hizkera horretantxe aplikatzen dira bete-betea aipatutako printzipioak, hor ez baitago idatzizko tradizio baten edo latinaren ezaguerak jarririko trabarik, eta konparaketarik baldin bada, era perifrastiko batez egin ohi da. Hori dela eta, hau gorde deneko hizkuntza erromaniko orotan esan daroe, *\*más mejor*, *\*más peor* etab<sup>17</sup>. Hala da italieraz ere: *piu ...*, zeren konparaketarik baldin bada, perifrasiarekin egin beharko da, kanpo determinazioa egon beharko, erlazio bat dugulako.

Gauza bera gertatzen da gorde diren superlatiboetan, *optimo* eta *pesimo* bezalakoetan. Herrian norbaitek baldin badarabilzki «más pésimo todavía» esango du, hots, positiboak bailiren.


Berdin-berdin jazotzen da leku-adberbioekin. Kasurako, esan ohi da latinak bereizten zituela nonbaiten egotea alde batetik, eta nonbaite-rantzko higadura bestetik, eta hizkuntza erromanikoek kendu ohi dutela bereizketa hori, eta esan, adibidez, *estoy aquí* eta *ven aquí*. Hori halan da, baina ez hori bakarrik: aldakuntza askoz ere sakonagoa dugu. Latinez adberbiook era honetara erabiltzen ziren:

- Toki batean egotea edota esparru horren barruko mugimendua azaltzeko *HIC* erabiltzen zen.
- Toki baterantzko mugimendua eta toki horren barrurainokoa adierazteko *HUNC* zen erabili ohi.
- Toki batetik mugimendurako *HIC*.
- Toki batean barrena: *HAC*.

<sup>16</sup> Euskaraz esapide sintetikoa dugu beti, bai *Ogia baino hobea da* arauzkoan, eta bai haren ondoan entzun ohi den forma pleonastikoan ere: *Ogia baino hobea da*.

<sup>17</sup> Honetan ere, euskerak forma sintetikoa eskatzen du beti, bai forma pleonastikoetan ere (*hobetoago...*).

COS. MAR. -2-



Alabaina, zer gertatu da hizkuntza erromanikoetan? Gaztelera dugu aldaketa agerien duen hizkuntza. Izan ere, esparru baten barrurainoko mugimendu hori lehenengo funtzionkotzat jo izan da, hau da: ez bakarrik espazio batean egotea eta espazio baten barruan mugitzea, baina baita espazio baten barruraino heltzea ere.

Bestela, bi espazioren arteko erlazioa dagoen guztietarako, hitzez kanpoko determinazioa daukagu: *hacia aquí*, *de* edo *desde aquí* eta *por aquí*.

Jakiteko: erlazioerik egonez gero hitz berbera dugu, baina kanpo determinazioak dauzkala. *Aquí* delakoa espazio berberaren barruan amaitzen denean ez da erlaziozkatat jotzen, baina esparru horretan bukatzen ez bada, norbait esparru horretarantz mugitzen baldin bada, orduan badago beste espazio batekiko erlazioerik eta, horrenbestez, *hacia aquí* esaten da.

Zer gertatzen da adizkiekin? Zer dela eta lotzen dira aditz formok barne determinaziodun forma simple legez? Izan ere, adizki soilak mintzaunearekiko erlazioaz determinatzen dira, bai, baina ez dute momentu biren arteko erlazioerik esan nahi, hots, *egon nintzen*, *egin nuen*<sup>18</sup>, eta abarrek aldi jakin bati eta une berorretan ezar daitezkeen bereizketei egiten diete aipu. Baina erlazioerik egotekotan, alegia, denboraren aldi bi harremanetan jartzen badira, adierazpidea perifrastikoa izango da nahi eta nahi ez. Esan izan da hizkuntza erromanikoetan, gure hizkuntzotan, *HABEO DICTUM* formak *DIXIT* ordezkaturako zukeela. Bada hori ez da inondik ere egia, zeren *DIXIT* formak gaurdaino baitirau: *dije*, *dijo*, *dijiste*, etab. Gertatu izan zena da analisisa egin zela: *DIXI* latinez izan zitekeela hala aoristoa —hots, iraganeko uneren bat, perfektoa, esaterako—

<sup>18</sup> «Estuve», «hice».

nola iragana eta orainaldiaren arteko erlazioa, artean dirauena. Aoristorako *DIXIT* geratu zen, hor erlaziorik gabeko aldi bakarra adierazten delako, eta perfekturako, berriz, *HABEO DICTUM* forma, alegia, ez une bakar bat, baizik bi uneren arteko erlazioa aditzen emateko: *esan dut eta esanak badirau*<sup>19</sup>.

Geroaldiari dagokionez, hizkuntza erromanikoetan duguna *CANTARE HABEO* geroaldi perifrastikotik datorkigu, zeinak *CANTABO* klasikoa ordezkatu zuen. Baina geroaldi perifrastikoak ez zuen geroaldi balioa bakarrik, eta jatorriz «kantatu behar dut»<sup>20</sup>, «kantatzeko dut», «kantatu gura dut», «kantatzeko naiz», «kantatzeko xedea daukat», esan nahi zuen, hau da, orainaldiarekin loturiko geroaldia zen, orainalditik ikusia. Edo bestela esan, hor ere bi une erlazioatzen ziren, forma perifrastikoaren benetako balioa, hain segur. Geroaldi esanahi betearen bereganatzen duenean ordea, adizkia aglutinatu egiten da eta trinko bihurtzen, *cantaré*, jadanik orainaldiarekiko lotura barik, eta erlazioetarako beste forma perifrastiko batzuk sortzen dira, *voy a cantar* bezalakoak, hots, orainalditik begiratuak. Izatez ere, gure hizkuntza erromanikoetan forma perifrastiko guztiek bi denbora uneren arteko erlazioa azaltzeko balio dute. *He dicho, he estado* lako formak ez dira —esan ohi denaren kontrara— gaurko gaztelarazko *dije* bezalakoak, gaztelaraz ere denbora tarte batean gertatzen den zerbaitetaz izaten baita kontua, tarte hori hasi denetik eta hitz egiten ari den oraingo unerarte, baina aipatutako epea oraindik amaitu barik dagoela. Tartea bukatu bada *dije, estuve, fui* eta abar ditugu. Baldin, ordea, momentu honetantxerarte esaten bada, adibidez *Hoy ha llovido mucho*, horrek esan nahi du atzo ere euria izan zela; edota *Esta semana ha llovido mucho* esanez gero, orduan ulertuko da iragan astean ere euri handiak izan zirela; *En este siglo ha habido muchas guerras*: aurreko mendean ere gerra ugari izan ziren. Ez du ardura aldeak, denbora luzeerak, axola diona da kontutan harturiko aldi hori burutu denentz. Beraz esan genezake, honela, *Desde que Dios ha creado el mundo*, hau da, oraindik dirauen eternitate honetan.

Era berean, hizkuntza erromanikoetan sortzen diren perifrasi berrietan —gaztelera eta portugesa dira perifrasi ugari dituzten hizkuntzak— erlazio berori dugu beti. Esaterako, nik *ikuspegi kategoria* deitzen diodanekoan, ekintzari nola begiratzen zaionekoan, bi momenturekiko erlazioa dago betiere. Une bik (ekintzaren hasiera eta atzendea izan daitezkeenek) mugatzen duten tartearen erdian *estar haciendo* daukagu: *estoy haciendo, estaba haciendo*, edota baita *Ayer estuve leyendo durante*


<sup>19</sup> *He dicho y lo dicho sigue estando.*

<sup>20</sup> «tengo que cantar», «he de cantar», «quiero cantar» jatorrizkoan I.O.

*todo el día*, hau da, hasieratik amaipundura arte; baliteke, gainera, A eta B puntuok gune bakar batera etortzea: *Cuando entré estaba leyendo*<sup>21</sup>.

Iraganeko une batetik C puntu horretara arte baldin bada (ikus irudia) *vengo haciendo* dugu. C-tik aurrerantz bada, baina mugimenduz oraingoan ere, *voy haciendo*. C aurretiko une batean hasi eta momentu horren ostean ekintzak jarraitzen badu, orduan, *sigo haciendo*. C-ren aurre eta ostetik zenbait unetan burutzen bada, *ando haciendo* dugu, bateratasunezko ikuspuntuaz; baina betiere puntu bat baino gehiagoren arteko erlazioa dagoela.

COS. MAR. -3-



Halan berean, gure hizkuntzek berezko duten beste kategoria batarako, gradu edo faserako alegia, ekintza gogoan hartu zen unearen eta ekintzaren burutze-unearen arteko erlazioa daukagu. Ekintza honako hau baldin bada:

COS. MAR. -4-



<sup>21</sup> Euskeraz zehatzago adieraz daiteke balio hori egitura denborazkoak direla medio, aditza nominalizaturik zein gabarik. I.O.

...hasi orduko, orduan esaten dizuet: *estoy por hacer*; baina hasteko momentuan bertan ere jar naiteke, eta hor, *me pongo a hacer* esango dut.

Amaieran ere koka naiteke: *termino de hacer*.

... Eta burututakoan: *acabo de hacer lo siguiente*:

Ekintza gogoan hartu deneko unearen eta ekintzaren garatze neurriaren arteko erlazioa sortzen da beti. Hortaz, edozein adizki perifrastikoren interpretazioa egiterakoan, kontu egizue zein izan daitekeen aditzak aditzera emandako erlazioa, eta ohartuko zarete gure hizkuntza erromanikoetan erlaziooi ematen zaien garrantzia; hizkuntza erromanikoen, frantsesa salbuetsiz, puntu honetatik beste horretara (goragoko irudietako A eta B puntuak) hainbat eta hainbat aditz bereizketa eta erlazio adierazten dituzte, eta, tamalez, askotan, are gaztelerazko aditza ikasteko ere, edota portugesa, frantses aditzaren deskribapen estrukturala hartzen da giltzarritzat, hizkuntza erromanikoetako aditzik txiroena, gainontzeko hizkuntza erromanikoetan ez bezala bereizketa guzti horiek gertatzen ez direnekoa. Beste zenbait kategorietan ere antzera gertatzen da, hala nola aurkigune edo intzidentzian, non ekintza bat isil daitezkeen beste zenbait ekintzarekin harremanetan jartzen den, adibidez: *vino a caer*. Orduan, zenbait gauza konplitu ondoren, bukaeran hona dator erortzera, hona gainera.


Ederto. Auzi honetarako oso argigarria da pasiboarekin jazo zena. Gure esku liburuetan irakurri ohi dugu latinak, hizkuntza erromaniko bihurtu zeneko, pasiboaz beste egin zuela. Hori egia da, baina askoz gehiago ere egin zen: analisisa, alegia. Noski, analisisa esaterakoan ez da esan nahi jakinaren gainean egindako analisisa; hiltunek ez dute pentsatzen «Pasibo hau erlazionala baldin bada honela eta honela egingo dugu» baina onartu egiten dute, ezjakinean, analisi hori. Orduan, bereizketa berriaren arabera, hizkuntza erromanikoetan erlaziozko pasiboak era perifrastikoaz adieraziko zen, eta latinean zeuden beste balioak, erlaziozkoak, adizki trinkoen bitartez. Zer esan gura dut horrekin? Bada, latinez pasiboak deitzen diogunak hiru funtzio zituela gure ikuspegitik, pasibo latindarra hurrenekoa izan zitekeen:

- pasiboak berez deritzona, hots, objektuaren ikuspuntutik harturiko ekintza ajentaduna, esaterako: *IULIA AMATUR A PAULO*, Julia ...-k maitatua da;
- erdikoa ere izan zitekeen latinez, bihurtari gisa, adibidez: *NOMINOR* (deitzen naiz/izena dut), *QUIA NOMINOR LEO* (zeren Leo deitzen naizen/dudan izena);
- eta inpersonala ere izan zitekeen *DICITUR* bezala.

Orain, zer jazo zen hizkuntza horietan? Ez da forma trinkoaren lekuan perifrasiak ezarri denik, baizik eta egilearekiko erlazio garbia perifrasiak azaltzen dela gure hizkuntzetan; hau da, esaten da: *Julia es amada por etab.*, baina, berriz, ez diot *soy llamado*, hori esan ahal izateko lehenagotik *me llamo* behar da. Ordea, nire izena esan nahi badut ezin dut *soy llamado* esan, latinez bezala, *me llamo* baino, hau da, forma ez-perifrastikoa erabiliz, bihurtaria, zehatzago esanda; eta *DICITUR* adierazteko ezin dut *es dicho* esan, *se dice* baizen, eta hizkuntza erromaniko guztietan, frantsesa salbu, forma soila, ezertxo ere barik, gailendu zen, esaterako *¿Qué dice aquí? Aquí no dice esto*, eta forma inpersonala dugu berori. Halaber, edizio bateko erratuak zuzentzean *dice...debe decir...* erabili ohi da, hots, inpersonala, latinezko forma bera; hau da, analisisa egin da hizkuntzan: barnekoa dena, erlaziozkoak, forma ez-perifrastikoen eman ohi da aditzera, eta erlazionala dena bakarrik adierazten da era perifrastikoaz.

Antzeko analisisa burutu da hizkuntza erromanikoetan askoz beranduago sartu zen forma batean ere, lehenago italieraz eta gero gazteleraz, portugesez, katalaneraz eta orain berri errumanieraz ere sartu den forma batean: latinezko *-ISSIMUS* superlatiboan. Bada, superlatibo hau sartu zuten humanistek ez zuten latinezkoak bestelako esanahi batez sartzeko asmorik. Latinez superlatibo hori erlatiboak zein absolutua zen, hots: *ALTISSIMUS HOMO* «oso gizon altua», eta bai honela ere: *ALTISSIMUS HOMINUM* «gizonik altuena». Zer gertatu da bada hizkuntzotan? Lehenbizikoa, absolutua —hau da, erlaziozkoak— zeharo zabaldu da: *una casa altísima, un hombre altísimo...*; besteak, *altísimo entre los hombres*, edo italieraz *altísimo fra gli uomini*, latinismoa izateari eutsi dio, herri hizkerak ez du esamolde hori onartu, zeren, hitzean bertan barne determinazioa edukirik, ezin duen erlaziozkoak izan. Erlaziozkoak hitzaz landa adierazi behar da, *el más alto* etab. bezala, eta ez bestela. Baina batek esan dezake, bada beste superlatiborik, *altísimo* dugu eta gainera badugu *muy alto* ere, horrela italieraz ere *altísimo / molto alto*, eta portugesez halaber: *altísimo / muito alto*, eta abar... Hortaz, badirudi gauza bererako forma bi, perifrastikoa eta ez perifrastikoa, ditugula. Ez, bada: bi formok nolakotasun baten puntu gehiena, garaiena adierazi ohi eta ahal dute; baina *-isimodun* formak positibotik igaro barik egiten du hori, artez; *muy-dun* formak, aldiz, positiboak baino asago doan arren, maila positibotik igaro behar du.

Argibide batzuk emango dizkizuet: aurrena, banindoan ni itsasontziz osteratxo bat egiten eta italieraz oso ondo, ederto hitz egiten zuen greko bat ezagutu nuen. Bapatean ohartu nintzen greko horrek esaten zuen zerbaitek enbarazu egiten zidala. Zer izango eta zer izango egon



nintzen, eta orduan somatu nuen agur esaterakoan nik adibidez «*arratsaldean egongo gaituk*» (italieraz) esaten nion bitartean, berak, beste hau erantzuten zidala: «*molto bene*». Bada ez da halan esaten italieraz, *bene* edo *benissimo* baizik, *molto bene-k* graduaketa dakar eta. Batek esan lezake: *bene, bene, molto bene* puntu batetik bestera igarotzeko, baina ezin esan *molto bene* zerbaitetik pasatu barik, erlaziorik —implizitorik bederen— egon gabe. Horixe ikus daiteke nolakotasun bera modu perifrastikoaz edo trinkoaz aipatzerakoan ere. Italia da gertaera hori hoberenik nabari den tokia, han *-issimo* askoz erabiliagoa delako.

Adibidez, demagun egunkarian iragarki bat jartzen dudala idazkari baten bila nabilelako. Andereño bat agertzen da eta nik hauxe diotsat: «*ma XXX giovanissima*». Hori esatea ez da inolaz ere kritika bat, ez du inolako ondoriorik, lore bat ere izan daiteke, eta abar; alabaina, nik badiotsat: «*ma XXX molto giovane*» orduan horrek dakarrena da: «nik uste baino gazteagoa», «gazteegia lan honetarako», «gazteegia niretzako» etab. Hau da, erlaziorik bat dakar. Gaztekeraz ere nabari daiteke gertakari hori, bai aipatu era jazargoa duen edozein hizkuntzatan, batez ere ezezkako esaldietan, zeren *muy*-dun forma ezeztatzen denean, positiboaz haraindik forma ezeztatzen da. Beraz, *no muy* positiboa baino lehenago aurkitzen da, baina ordea *-ísimo*-dun forma ezeztatzen bada, puntu goreneko hori bakarrik ezeztatzen da, eta ezeztatutakoa bai egon daiteke positibotik aurrera. Esaterako: *no es muy bueno*, alegia, bada txarra nolabait, ona baino gutxiago esan nahi du; *este señor no es muy inteligente*, hortaz, argia baino gutxiago da. Baina norbaitek badio: «fulano es *intelligentísimo*», nik esan dezaket, «bueno, *intelligentísimo* no diría, pero es muy inteligente», hots, puntu gorena bakarrik ezeztatzen dudala. Beraz, adi ibili norbaiti esaten dio-

zuenean «usted no es *intelligentísimo*» edota «no es muy *inteligente...*» *No es muy inteligente* hautatuz gero, «tentel samarra zara» esango diozue, positiboa baino gutxiago. Hau da, erlaziorik bat dagoela hor, implizitua behintzat.

Ondo. Usadiozko tipologia osoak, analitikotasunean oinarritzen zenak, funtzio gramatikalarik egiten zion aipu, esan nahi da, kasuari hitzaren mailan eta perifrasiari hitzaz gainerako mailan, baina beti ere hitz baten funtzioa kontutan hartuta. Alabaina, baldin printzipio tipologiko bat benetan printzipio tipologiko bada, orduan bestelako mailetarako ere balio beharko du, baita perpaus mailarako ere.

Zein zen latinezko perpausaren egitura? Esan daroe latinezko egitura ereduak edo gogokoena borobilduna zela, erdigune bereko zirkuluak, hau da, subjektua eta aditza kanpoaldeko harresitza eta gero ondorengo determinazioak, halaxe: *HOMO SCRIBIT*, eta gero, *HOMO LITTERAM SCRIBIT*, *HOMO LITTERAM HODIE SCRIBIT*, *HOMO LITTERAM HODIE AMICO SUO SCRIBIT*, eta beste. Hau da: «gizonak idazten du», «gizonak gutun bat idazten du», «gizonak gutun bat gaur idazten du», «gizonak gutun bat gaur bere lagunari idazten dio», eta abar, determinazio ezberdinen barnean. Aitzitik, esan ohi da hizkuntza erromanikoetan —gaztekeran, besteak beste— zirkuluka barik, lerroka tolosten dela egitura: lehenbizi sujeta eta haren determinazio guztiak omen ditugu eta gero aditza, haren osagarri guztiak.

Hori, aditu batean, egia da. Honela, AA, ABBA, ABCCBA dugu latindarendako eta hizkuntza erromaniko batean, berriz, ABCABC erako egitura aurkituko dugu; jakiteko, subjektua bere determinazioez, aditza bere determinazioekin. Hori lehen ikusi batera bakarrik dateke, zeren *aditz-determinazio* izena ematen dioguna, osagarriak bestela esan, ez da aditz-determinazioa, sujeta eta aditzak osatzen duten perpaus osoarena baizik. Izan ere, ezin osagarri baten galde egin sujetorik ez bada, implizitorik behintzat; sujeta bakarrik itaun genezake, esaterako «nork egin du hau?» baina ez, inolaz ere osagarriaz subjektu barik, sujeta hori implizitua baino ez bada ere. Hau da, esaten dugunean «zer egin du?», bada egin duenik; eta sujeta oraezean ageri behar duen hizkuntzetan, alemaneraz, ingelesez eta frantsesez bezala, ezinbestean azalduko da. Esaterako, honela galde genezake: «qui fait?», «qui chante?», sujeta oraezean itaunka gabiltzalako, baina honela galdetuz gero, adibidez: «\*que fait?» («zer egiten du?») —esan behar dena da «que fait-il?», «que fait-elle?», etc.— ezin. Osagarria ez da aditzaren determinazioa, gune osoarena baino, eta benetako aditz determinatzaileak aditz modalak izenekoak dira; horiek bai aditza bakarrik determinatzen dutena, eta ezin berorien alde itaundu, aditzagatik bakarrik ezin den bezala. Jakiteko, *behar, nahi, gura*, aditz modalak dira, aditza bakarrik

determinatzen dute, egitango aditz osagarriak dira. Hori ikusten badugu, orduan ohartuko gara baietz, latinez bazela beti barne determinazioa benetan, latinak determinazio paradigmaticoa zuela edozein funtziorako; hizkuntza erromanikoek, berriz, determinazio motaren pentsura jokatzen dute. Kasuan, *barnekoak* gune barrukoa esan nahi du, *kanpokoak* guneaz landakoa den legez. Determinazioa gunearen alde jakin bati bakarrik badagokio —sujeto-gunearen zein aditz-gunearen alde bati— orduan, barnean kokatuko da gure hizkuntza erromanikoetan, eta inoiz ez kanpoan: *el hombre bueno debe escribir* esango dugu, eta ez, ostera, *escribir debe*. Ordea, osagarria izanez gero, kanpoan jarriko dugu, gune osoaren determinazioa delako, hots, kanpo determinazioa, eta latinismoa litzateke barnean sartzea, alegia, esan ohi dugu *el hombre bueno escribe una carta*, eta ez *una carta escribe, una carta escribe* badiogu latinismoa darabilgu. Beraz, zein determinazio motarekin ari garen ikusi behar da, barneko ala kanpoko den, guneari dagokionentz, guneko osakide bati ala gune osoari.

Berdin antzera, determinazioa barneko / kanpoko izan daitekeela onartzen badugu, orduan esandakoa periodo osoarentzat ere izango da baliagarri, perpaus konplexuaren egiturarentzat. Orain, latinak zein prozedura zuen gogokoen? Latinak minen zuen prozedura perpaus nagusiaren barnean menpekoak jartzearena zen. Hau da, esaterako: *DARIUS CLASSEM INGENTARUM NAVIUM COMPARAVIT*, «Dariusen armada bat eskuratu zuen». Eta gero determinaziorik baldin bazen, menpeko perpausa eta beste, orduan perpaus nagusia zabaldu eta menpekook barruan kokatzen ziren, halantxe: *DARIUS CUM EX EUROPA IN ASIAM PREMISSET HORTANTIBUS AMICIS UT GRAECIAM IN POTESTATEM SUAM RELIGERET UT AUXILIUM EIUS* —ez dakit zer gertatu zen Sardes aldetik eta abar— *CLASSEM COMPARAVIT*, hau da, gainontzekoa barrura. Zer jazotzen da hizkuntza erromanikoetan? Hizkuntza erromanikoetan determinazio mota hartzen da kontutan, menpeko perpausak barru balioa duen, adibidez adjetibozkoa —erlaziozkoa, bestela esanda—, ala osagarri balioa duen, perpaus nagusi osoaren determinatzailea den, eta, horrenbestez kanpoan kokatu beharrekoa.

Darioren adibidea baino sinpleagorik ere ikusiko dugu, esan dudana hobeto suma dadin. Latinez honela esan ohi zen: *HOMO QUI SCIT SCRIBIT, HOMO ID QUOD SCIT SCRIBIT, HOMO CUM VULT SCRIBIT*. Kasuotan guztietan *HOMO SCRIBIT* («gizonak idazten du») eta gero menpeko perpausak barnera. Nolatan da hizkuntza erromanikoan? Lehen adibiderako, *el hombre que sabe escribe*, eta ez genuke —bai frantsesez, determinazio analitikoak bakarrik baitu, frantsesez kanpoan ere ager dakiguke, baina ez gainontzeko hizkuntza erromanikoetan— *\*el hombre escribe que sabe*. Kasuan *QUI SCIT* perpaus nagusiaren zati ba-

ten determinazioa da, *HOMO*rena, eta beraz, *el hombre que sabe escribe esaten dugu*. Bigarren kasuan, aldiz, (*HOMO ID QUOD SCIT SCRIBIT*) gizonak dakiena idaztea da auzia, hor *QUOD SCIT* osagarria da eta horregatik ezin liteke barruan sar: ez litzaiguke zilegi —latinismoa litzateke eta— *el hombre lo que sabe escribe*, baizik eta *el hombre escribe lo que sabe*, horixe dugu ekanduzko eraketa, hots gunetik kanpoko. Eta kasurik interesgarriena hirugarrena da (*HOMO CUM VULT SCRIBIT*). Hirugarrenean gizonaren nahia edo borondate ona uler daiteke, edota ateka, momentuko gorabehera, gizonak gogo egiten duenean, ondo iruditzen zaionean, idatzi egiten du. «Gizonak gura du» aditzen badut barruan kokatuko dut determinazioa: *el hombre cuando quiere escribe*, hau da, «ez etorri bazter saltsokin, gizonak nahi badu, horretara ematen badiu, beretara badu idazten». Ordea, zer adierazten du bestek: *el hombre escribe cuando quiere-k?* Esan gura du, noiz edo noiz, iruditzen zaionean, gogo egiten duenean, etab.; orduantxe idazten duela gizonak. Hortaz, *el hombre cuando quiere escribe* ► barruan; *escribe cuando quiere* ► kanpoan, esan nahi da, gura duen momentuan, beti ere printzipio berarekin bat. Halan da ezen gure hizkuntza erromanikoetan perpausak eta esaldiak ere jarraitzen diotela azaldu dugun printzipio horri berorri: *barne determinazioa barne funtzioetarako eta kanpo determinazioa kanpo funtzioetarako*.

Txikigarrien kasua eta oro har lexikoarena beha genitzake. Lexikoaren gainean esan ohi dugu zenbait eratorrizko formak ez direla hizkuntza erromanikoetan sekula errotu eta, erabiltzen diren adinean, latinismo gisa lotu direla. «Zere egina» esan nahi duten eratorriekin gertatzen da hori, *férreo, áureo, ígneo* motatakoekin adibidez. Zerbaiten jatorria edo gaia adierazi nahi bada, hizkuntza erromanikoetan *una puerta de oro, una mesa de madera, una baldosa de hierro*, etab. esan daiteke bakar bakarrik, hau da, beti kanpo determinazioaz, eta ez hitz eratorria erabilia. Bestea, *la puerta áurea* etab latinismoa da, eta halakotzat dute sendoen sustratu deneko hizkuntzek ere, italierak adibidez. Italieraz aurea forma latinismotzat jotzen da gaia adierazteko, baina ez iritzia emateko eta esan nahi bada «urrezkoa balitz bezalakoa, baina urrezkoa izan barik», orduan bai, horretarako badago forma trinkoa zabaldua, eta *\*aureo libretto* esaten dute, «urrezko dirudien liburua», urrezkoa izatea bere balu bezala.

Eta orain txikigarria. Esan izan dute, eta usu esaten dute —batez ere, bistan da, herri jermaniarrek, edo hizkuntzalari jermaniarrek, edo anglosaxoiek— herri erromaniarrek txikigarri asko erabiltzen dituztela, eta bihozperak, minberatiak, eztsuak eta abar direlako dituztela hain gogoko. Erromaniarrek, beraz, txikigarri ugari erabili ohi dute. Orain, gehiegizkoak denok gogai gaitzake. Gogoan daukat Chilen nengoen-

an ostatu batean bizi nintzela, eta harrigarria egin zitzaidala nola eskeintzen zizkidan gauzak mahaian ugazaba andrearen alabak: «*quesito, pancito, azuquitar*» eta beste, eta noski!, horrek gogaitu ahal zaitu. Baina txikigarriaren eginkizuna ez da txikigarriak metatzeak izan leza-keena, alegia, bihotz sarrastak adierazi edo eragitea, eta ezin daiteke esan, esan den bezala, frantsesak, abstraktoagoa eta abar delako, txikigarriak kentzen dituenik; frantses zaharrak ere bazituen, adibidez, *hommetik homo, home, homle*, etab. letozke. Alabaina, ezin daiteke esan *un bout d'homme, un tout petit bout d'homme, tout petit tout petit tout petit bout d'homme hambrecito* bezain samurra ez denik; jakiteko, txikigarrian graduaketa dugu baina beti ere txikigarria berbaren barruko determinazioa delarik: izan ere, objetua bere ohizko neurriarekiko —eta ez beste objeturekin alderatuta— xumeagotzea dakar txikigarriak. Liburu txiki eta bakarra bada esan genezake *Considera excelente el librito, el librinho, el libriccino*, beti txikigarriaz, baina bi egotekotan inori ez litzaioke bururatuko esatea: *Quiero el librito no el librote*, edo itazieraz: *Voglio il libriccino...*», kasu horretan ez, bi direlako. Kasuan benetan honela esaten da: *Quiero el libro pequeño, no el grande* hau da, kanpo determinazioa erabiltzen da.

Bada haur liburuen bilduma bat, frantsesez *Les petits livres d'or izena duena, ingelesez The Little Golden Books*. Bi aldiz itzuli dute gaztelarrera, Mexikon eta Argentinan; Mexikon *Los pequeños libros de oro* izenburupean, eta Argentinan *Los libritos de oro izenaz*; norik ere benetako erderaz dakien argentinarra du itzulpen zuzen, eta bakar bakarrik argentinarra, zeren itzulpen mexikarrak implizitoki beste bildumaren bat ematen du aditzera, zeina izena duen nahiz *Los libros de oro* bakarrik, nahiz *Los grandes libros de oro*. Hori hala balitz, orduan bai: *Los pequeños libros de oro*. Baina liburu txikien bilduma bakarra baldin badira, gaztelaraz *Los libritos de oro* izena eman ahal zaie bakar bakarrik, *Los pequeños libros de oro* izenak erlaziorik ez duela.

Antzeratsu, oso itzulpen txarra, txartxarra litzateke —eta badirudi halan izan dela, tamalez— *Le petit prince* izenburu erruz ezagunerako *El pequeño príncipe* delakoa. Inondik eta inolaz ere baina, ez da *Pequeño principerik, El principito baizik*. Horixe da gaztelaraz itzulpen artez bakarra, zeren printze bakarra bada —eta ezerekin erkatu gabea, ezta bere buruarekin ere txikitik eta nagusitan— orduan *El principito* bakarrik izan daiteke, esan nahi baita, txikigarriaz huts hutsean, eta ez *pequeño-z*. Noski baietz, beste zenbait kasutan, *El pequeño lord* bezalakoetan, beste arazotxo batzuk ageri zaizkiguna, bada *lordito* deitezketan, edo *lordecino*, edo *lorito*, beste zeozer uler liteke, eta murrizketa horrek beste bidea hartu beharra dakar, txikigarria ezin da osatu eta. Berdin gertatuko da unibertsitate txiki batez egokitzen baldin ba-

gara. Izan ere, *unibertsitate* hitzaren txikigarria eratzea oso gaitza da, nahiz eta unibertsitate hori benetan txikia izan unibertsitateen ohizko tamainarekin alderaturik.

Beraz, are lexikoan ere badugu eduki determinazio bera: determinazioa formakoa bertakoa baldin bada, barne determinazioa da, funtzio erlaziogabea. Gure hizkuntzetako printzipio nagusia, horrenbestez, hau da: gure hizkuntza erromanikoen beti ezartzen dituztela —hizkuntzaren eremu guztietan— barne determinazioak barne funtzioetarako eta kanpo determinazioak kanpo determinazioetarako. Jazargoa, beraz, ez da analitiko eta sintetikoaren artekoa.

Bada hizkuntza bat, kanpo determinazioa —hots, sintagmatikoa— bakarrik, edo ia bakarrik duena, eta azaldutako bereizketa ezagutzen ez duena: frantsesa. Frantses ertainera arte, frantsesa gainerako hizkuntza erromanikoen eremu tipologikoan gorde zen, eta esan daiteke haiek baino kontserbakorragoa ere bazela, deklinabideari hobeto eusten baitzion. Baina jazo ziren frantsesaz gauza bi: gertatu zen, alde batetik, azken posizioan kontsonanteen ahoskabetzea, eta, bestetik, nahastu zen femenino zeinu zen *-a* bestelako jatorria zuen *-e-ekin*. Zehatzago esanda: frantsesaz azken bokalak desagertzen dira muta cum liquidaren ostean izan ezean, hau da, muta cum liquidaren ondoren doanean *-en -e* bilakatzen da: *POPULUM-etik > peuple, PAUPERA-tik > pauvre-ra* bezala, baina *PAUPERUM-etik* ere etor daiteke *pauvre*, hots, dagoeneko ez da bereizketarik egiten, hor desinentziak ezin du jenero bereizketarako lagundu.

Numeroari dagokionez, bazuen frantsesak deklinabidea, baina ez ohizkoa baizik eta bi kasuduna: nominatiboa *murs*, zehar kasua edo akusatiboa *mur*, eta pluralean *mur* nom., eta *murs* akusatibo edo zeharrekkoa. Zer gertatu eta, frantsesak, beste hizkuntza erromanikoen bezala, kasuak kendu zituen, alegia, kasuak hitzez kanpo adierazi behar ziren edo, bestela, kokaeraren bidez, baina kasuak kentzeaz batera, era berean, numero bereizketa ere kendu zen. Eta une horretantxetik gora, frantsesak ez zuen numero bereizketa egiterik izan, ezpabere hitzez landa, kasu bakan batzuetan izan ezik, hala nola *cheval/chevaux*, eta abar non singularra / plurala bereizketa aldaketa fonetiko jakin batzuei esker dagoen oraindik. Hortaz, kanpotik bakarrik egin daiteke bereizkera hori: *des, mes* etab. Halabertsu maskulino eta femeninorako; zegoeneko desinentziak ez zuen balio eta bereizketa kanpoan egiten hasi zen, adibidez: *la pauvre*, etab. Beraz, frantsesak kanpo determinazioa kasu guztietan eta bera bakarrik erabiltzera jo izan du gero eta gehiago.

Eta aditz jokoa murriztu zuen. Egia esatera, aditz frantsesak —frantses arruntarenak, iparraldean mintzatuarenak— bi forma soil ez beste dauzka, aditz erromaniar orokorreko bi forma oinarrikoak direnak,

orainaldia eta inperfektua. Beste guztia perifrastikoa da, jakiteko: *j'étais / j'ai été, je vais faire ...* eta hortxe bai, forma perifrastikoak ditugu edozein funtziotarako, dagoeneko bereizketa egin barik.

Frantses ertainetik ere, frantsesak izenordeak erabiltzen ditu pertsonentzako, eta ezinbestero eskatzen ditu, baita adizkiak pertsona bereizteko balio lezakeen kasuetan ere: *nous avons, vous avez*. Eta *espainolez* nosotros tenemos *denerako nous nous avons* esan behar, hau da, berriro ere nous jarri, bestea aditzaren jokamorfema baino ez delako. Arrazoi beragatik, frantsesak egiatan ez du aditzean forma desberdinen arteko bereizketarik egiten, ezpada oraindik gordetzen den tradizio bati eusteko etab. Haur frantses batek adibidez être aditzerako *j'ai, tu es, il est* esateko joera dauka, eta gero ikasten du ezetz, *je suis, tu es, il est* behar duela esan. Hitz egiten hasten denean, frantses umeak hala esaten du avoir aditzerako, frantseseraren sistemako tipoari jarraiz: *\*ja, tu as, il a*, hots, forma oinarritzko batetik abiatuta. Eta *-ons* bezalako oso forma arruntetan plurala ondo azpimarratuta dago, baina aspaldidanik forma hori frantses herrikoian pluralekoa ez ezik singularrekoa ere bada; Canadako frantsesez, *j'avais* («nik nuen»), *j'avons* egiten da, eta horrelaxe da Frantziako zenbait eskualdetan ere. Abesti frantses batek honela dio: *si je courriions carouse comme vous je me casserions coin le calloux*, hau da, pluraleko forma bera singularerako erabilita. Guk, berriz, eskolan ikasi genuen —horrela ikasi behar da frantsesa halakoa delako—... ikasi genuen *le cheval / les chevaux*, singular eta pluralduna. Ume frantsesek edo *le cheval / les chevaux* esateko joera dute edo *le chevaux / les chevaux* egitekoa, hau da, nahiz cheval singular eta pluralerako, nahiz chevaux singular eta pluralerako, hots, *un chevaux*. Eta aurkitu ere egingo dituzue horren gainean txantxak egiten dituzten zenbait testu frantses, umeek pluraleko forma singular zein pluralerako edota singularrekoa singular nahiz pluralerako erabiltzearen gainean egindakoak, alegia. Izan ere, frantseseraren tipoari jarraitu besterik ez dute egiten kasu horretan umeek.

Gauza beragatik, frantsesez ez da txikigarrikerik erabiltzen, eta erabiltzen badira ez dute aipatu barne balio hori, besteren bat baino, frantsesez ez baita berezitasunik usnatzen *petite maison* eta *maisonette*-en artean. Eta berdin, frantsesez *él / ella* maiz sarritan ez da gogoan hartzen eta jeneroarekiko zalantza asko da; frantses herrikoian eta Kanadakoan bereizketa berri bat ezarri da, jakiteko: bokalez hasi eta kontsonantez bukatzen diren berbak femeninoak, kontsonantez hasi eta bokalez amaitzen direnak maskulinoak. Beraz, frantses herrikoiaz bada horri zor dudamudazko eta ezmezeko jeneroaren gaineko saldo luzea.

Eta ildo beretik superlatiboa frantsesez ez da inola ere errotu, *-issimez*-koa eta abarrezkoa, eta, horratio, frantsesez badago, are berariz-

ko barne determinazio baterako, erlatibozkoa legezkorako, perpausa nagusitik ate jartzea, zeren, honetan hain zuzen, hizkuntza analitikoak baita, bestela esan, kanpo determinazioduna edo sintagmatikoa, gehienetan gure hizkuntzek, espainolak eta beste hizkuntza erromani-koek, frantsesak salbu, hizkuntza sintetikoei zein analitiko deitu izan direnei ezezagun egiten zaien hastapen bat adinontzen duten bitartean; eta hastapen hori erlazionala eta ezerlazionalaren arteko bereizketan datza, barrukoa kanpokoari jazargotuz. Eskerrik asko.

#### GALDERAK<sup>22</sup>

HERNAN URRUTIAK: Badaukat galdera bat normaren barruan ez dagoen —hala esateko— elementu baten gainean: egoera pragmatikoaren arazoaren gainean. Esaterako, italieraz ezin da molto bene esan baina gaztelera, ordea, erabat zilegi litzateke hori. Orduan polisemian zelanbaiteko graduaketa dagoela esan genezake.

Beste auzia txikigarriena da. Tira, Amado Alonsok esan zuen... eta niri ere iruditzen zait *-ito* amaieran ere badela, gaztelaniaz behintzat, halako tentsio bat. *Semanitan*, adibidez. Atzo, telebista ikusten nengoe-la, pertsonaietako batek zera esan zuen: «Nos pasamos una *semanita* en Marbella». Asteak beti dauzka zazpi egun eta, ondorioz, *semanita* balorapen bat baizik ez da, opor aste hori gainerako aste guztiekiko harremanetan jartzen duena. Beraz, opor aste lan astetik desberdina dela jakinarazten duen ingurune testual edo pragmatikoak bakarrik apur lezake —esan dezagun— sistema tipologikoa.

EUGENIO COSERIU: Ez, ez da hori. Forma biak direnean bakarrik egin dezakegu berba jazargoz. *Libro pequeño / librito*-aren kasuan forma biak existitzen dira, baina *bien / muy bien-en* kasuan espainieraz ez da inoiz *-ísimo-dunik* sortu, aditzondoak espainieraz oso nekez erazten direlako. Horregatik eman dut italieraz adibidea. Adjetibo bat hartu izan banu, orduan bai esan zitekeen gaztelaniaz ere. Etxe baten aurrean esaten baldin badidate: «Zer deritzozu etxe horri?», nik erantzun dezaket: «Es muy alta» edo «es altísima». *Altísima* diodanean esan nahi dut inplizitoko dauden beste batzuekin alderaturik oso altua dela. Arazoa ezin da *muy bien / \*benísimo-ekin* sortu, espainieraz ez baita *\*benísimo-rik*, eta forma bakarra dagoenez, berori erabili behar, eta ez dago bereizketa egiterik, noski.

Txikigarriak direla eta, Amado Alonsoren ohizko errakuntza izaten da funtzio semantikoan hizkuntza eta hitz egiteko funtzio pragmatikoa

<sup>22</sup> Egon zen galdera aukeran hautatu behar izan zen gaiari estuen eta zorotzen jarraitzen ziona, bestela transkribapena luzeegi gertatuko baitzen.

nahastea, hau da, balio pragmatikoari hizkuntz balioa ematea. Balio pragmatikoa esatea da, hitz egitearen balioa. Eta nola gauzatzen da hizketa balio hori? Beno, esan dezagun txikigarriak hizkuntzan, testuingurutik kanpo, xumeagotze objetiboa adierazten duela, alegia, itauntzen bada «Zer da liburutto bat?»<sup>23</sup>, orduan erantzungo dugu «Liburu txiki bat»<sup>24</sup>. Baina hitz egitean bestelako balioak gehitu dakizkioke horri: «ttikia», eta hortaz, adibidez «panpoxa», «maitagarria» etab. Orduan txikigarriak atseginaren balio hori etab. bereganatzen du, edota alderantziz ere: «txikia» da, baina gauza horrek ez luke txikia izan behar, eta orduan, kontrara, gutxiespen, mesprezuzko eta antzeko balioak ematen zaizkio. Esate baterako, esaten badugu irakasle bati amak, emazteak edo maitaleak —maitalerik baldin badu— *neure irakasletxo*a deitzen diola, orduan horrek begizkotasunezko balioa dauka, gizon hori umetzat hartzen dutelako —emakumeek senarra semetzat hartzeko joera erabili ohi dute— eta horrela *neure irakasletxo*a dugu. Ordea, gure irakaslea batere gogoko ez duen lankide batek gauza bera esaten baldin badio, orduan *irakasletxo*-k «irakasle kaxkarra» esan nahiko du, hau da, txikigarriak bestelako balioa hartuko du. Balio guztiok txikiagotze balioaz biderkatu daitezke, baina ezin dira harekin bat egin, baliook xumeagotzearen kontrako esanahiak izan ditzaketelako: hara hor xumegarriak ez diren eta begi bistan txikiak inondik ere ez diren objetuen kasua. Halako batean, etxe itzel handi baten aurrean *Zer da etxetxo*a, *eraikiarazi duena!*<sup>25</sup> esaten baldin badut, orduan, jakina, ezin txikigarri baliorik eduki, kontrara baino, «ikaragarritzko etxea» esan gurako du. Edo bestela, norbait izugarritzko garagardoa edaten ikusten badut eta *hara, hori garagardotxo*a hartzen ari zarena<sup>26</sup> esaten badiot, orduan lehengo gauza bera ikusten da. Edota gauza biak batera, ezen pezeta beti pezeta delarik, ehun pezetatxok ehun pezeta izaten jarraitzen dute, txikiagotu ezin den balioa baita hori. Eta horrela kasu denean, andre batek kentzen dituen bost kilotoxoenan, adibidez: bost kilo dira beste barik, balio hori ez delako xumegarria, eta hor txikigarria erabiltzeak afektuzko balioa jaresten du berehala, benetako txikiagotzea ezinezkoa da eta. Beraz, ez dira pezetatxoak eurak estutzen direnak dagoeneko ez dutelako batere balio; alderantziz izan daiteke: hain dira garestiak pezetatxoak ez dudala uste gutxi direnik. Osterantzean esanda: afektuzko erlazio bat dago kasu bakoitzeko. Eta adibide bat kontatuko dizuet. Bazen behin Uruguay-n osagilea beti bidean harra-

<sup>23</sup> «¿Qué es un librito?» jatorrizkoan. I.O.


<sup>24</sup> «Un libro pequeño» jatorrizkoan. I.O.

<sup>25</sup> ¡Qué casita que se mandó él! jatorrizkoan. I.O.

<sup>26</sup> ¡Qué cervecita que se toma!, jatorrizkoan. I.O.

patu nahirik ibiltzen zen bat, kontsultak ordaindu barik egiteko, eta orduan, egun batean halan esan zion:

- Mediku jauna, mesedez, kontsultatxo bat.
- Esaidazu: kontsulta ala kontsultatxo izango da?
- Zein da aldea?
- Bada, kontsulta baldin bada, hoge peso izango direla, eta kontsultatxo izanez gero, ostera, hoge peso txo.



Sinadura honekin eman zigun Coseriu bere hitzaldia euskaraz argitaratzeko baimena.